

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OYÓN-OIONGO UDALA

Behin betiko onestea ordenantza fiskalen 2025eko ekitaldirako aldaketa

Ordenantza fiskalak 2025eko ekitaldirako aldatzeko espedientea jendaurrean egon da 30 egunez 03162 zenbakiko iragarkia ALHAOn argitaratu (2024ko urriaren 16an, 118. zk.) eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Ez da inolako erreklamazio edo oharrik aurkeztu ordenantza fiskalak 2025eko ekitaldirako aldatzeko eta gainerako indarraldia luzatzeko erabakiaren aurka, eta, beraz, behin betiko onetsita geratzen dira.

Behin betiko onetsitako ordenantzak 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean eta egun horretan hasiko dira aplikatzen.

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan ezartzen duenaren arabera, ordenantza fiskalen aldaketaren testu osoa txertatzen da.

Administrazio bidea agortzen duen behin betiko onespeneren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egokitzen jotzen den beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da. Erreferentzia: Bo241212B.

Oyón-Oion, 2024ko abenduaren 11

Alkatea

JOSE MANUEL VILLANUEVA GUTIÉRREZ CABEZÓN

Ordenantza fiskalen aldaketaren testu osoa

- I. 1. ordenantza fiskala: ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- II. 4. ordenantza fiskala: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
- III. 5. ordenantza fiskala: hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga.
- IV. 6. ordenantza fiskala: udal jabari publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko tasa.
- V. 12. ordenantza fiskala: establezimenduak irekitzeko lizentziagatik ordaindu beharreko tasa.
- VI. 13. ordenantza fiskala: hirigintzako lizentzien tasa.
- VII. 14. ordenantza fiskala: El Espinar gunean kirol zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko prezio publikoa.
- VIII. 15. ordenantza fiskala: kirol instalazioak eta soziokulturalak erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa.

1. ordenantza fiskala: ondasun higiezinaren gaineko zerga

	Karga tasa
A) Hiri ondasunak	ehuneko 0,26
B) Landa ondasunak	ehuneko 0,64

4. ordenantza fiskala: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga

5. artikularen 6. apartatuari (Hobariak) eta g) letra gehitzen zaio.

g) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Arabako Lurralde Historikoak sustatuta, babes publikoko etxebizitzetarako oin berriko obrak eraikitzea interes berezikotzat edo udal onurakotzat jotzea.

Ehuneko 95eko hobaria aplikatzea apartatu honetan aipatutako oin berriko obretako eraikuntzei. Hobaria garajeen eta trastelekuen eraikuntzari ere aplikatuko zaio, proiektuan etxebizitzetara lotuta badaude.

Erakunde eskudunak emandako obren behin-behineko kalifikazioa eduki behar da zerga sortzen den unean; alabaina, hobaria baliatu ahal izateko, obren behin betiko kalifikazioa lortu behar da. Hori ukatzen bada, hasierako konturako autolikidazioan aplikatutako hobariaren zenbatekoan handituko da ordenantza honen 13. artikuluan aipatzen den zergaren behin betiko likidazioa.

5. ordenantza fiskala: hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga

Tarifa aldatu eta taulan sartzen da.

Irailaren 29ko 4/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren Foru Arauaren testu bateginaren 4. artikuluko 4. apartatuan xedatutakoa aplikatuta, honako hau da koefizienteen taula:

SORTZAPEN ALDIA	KOEFIZIENTEAK
Urtebete baino gutxiago	0,12
1	0,11
2	0,13
3	0,14
4	0,15
5	0,15
6	0,14
7	0,14
8	0,12
9	0,10
10	0,9
11	0,8
12	0,8
13	0,8
14	0,08
15	0,10
16	0,12
17	0,16
18	0,22
19	0,28
20	0,42

6. ordenantza fiskala: udal jabari publikoaren erabilera pribatuagatik edo aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko tasa

Tarifaren A, B, C eta D epigrafeak aldatzen dira.

A) epigrafea. Ibiak. Ibilgailuak espaloietan edo oinezkoentzako guneetan zehar finketan sartzea eta bide publikoan aparkalekua erreserbatzea.

	Euroak
a) 1 eta 5 ibilgailu artean aparkatzeko lekua duten lokaletarako ibia	81,50
b) Hiru metrotik gorako igarotze zabalera duen metro edo zatiki bakoitzeko	13,50
c) 5 ibilgailu baino gehiago aparkatzeko lekua duten lokaletarako ibia	165,00
d) Hiru metrotik gorako igarotze zabalera duen metro edo zatiki bakoitzeko	26,00
e) Ibi seinalea edo plaka	13,50
f) Oinezkoentzako gunera sartzeko agintea edo giltza	20,00

B) epigrafea. Erabilera publikoko lursailak eraikuntza material, edukiontzi eta hondakinekin okupatzea eta antzeko beste okupazio batzuk.

a) Hondakinekin okupatzea. Euroak metro koadro eta okupazioko egun bakoitzeko	0,66
b) Edukiontziekin okupatzea. Euroak metro koadro eta okupazioko egun bakoitzeko	1,94

C) epigrafea. Erabilera publikoko lursailak aulki, mahai eta mahai-ahulkiz okupatzea irabazteko asmoarekin

Mahai 1 eta 4 aulkiko moduluz okupatzeagatik denboraldian	41 euro
Instalazio lizentziaren titularren okupazioa, gehienez ere	8 mahai eta 32 aulki
Haize babesak eta antzekoak, unitateko	41 euro

Esker emate jaiegunetan 4 mahai eta 16 aulki jarri ahal izango dira, gehienez ere.

D) epigrafea. Erabilera publikoko lursailak postuekin, barrakekin, salmenta etxolekin, ikuskizunekin edo atrakzioekin okupatzea.

Azokako lursailen adjudikazioa enkante bidez egiten bada, organo eskudunak finkatuko ditu baldintza agirian lizitazio tasak.

	Euroak
a) Salmenta etxolak	60,00
b) Barrakak: tiobiboak eta karruselak	200,00
c) Talka autoen pistak eta antzekoak	600,00
d) Ikuskizunak edo atrakzioak	115,00

12. ordenantza fiskala: establezimenduak irekitzeko lizentziagatik ordaindu beharreko tasa

Tarifa aldatzen da.

	Euroak
I. Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak ezartzen dituen izapideak egin beharrik ez dakarren jarduera irekitzeko lizentzia	393,00
II. Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak ezartzen duenaren arabera sailkatutako jarduera irekitzeko lizentzia	1.020,00

13. ordenantza fiskala: hirigintzako lizentzien tasa

Aipatzen diren epigrafeen tarifak aldatzen dira.

	euroak
Lokalak eta eraikinak ikuskatzea	
a) Eskatzaileak proposatuta, inork salaketarik jarri gabe	68,00
b) Hirigintza zedulak, ziurtagiriak eta txostenak ematea	
Hirigintza zedula	68,00
c) Irizpena eman beharra dakarten ziurtagiriak eta txostenak	55,00
Lizentzien luzapenak	
Likidatutako eskubide eta tasen ehuneko 5 ordainduko du, eta, gutxienez	15,00

Tasa ofizioz likidatuko da obra egiteko epea bukatutakoan, nahiz eta interesdunak luzapenik eskatu ez, baldin eta hirigintza legeek lizentzia luzatzea ahalbidetzen badute.

A. Lehenbizikoz okupatzeko lizentziak eta bestelako baimenak	393,00
B. Aholkularitza akustikoaren txostena ingurumen lizentzia baten espedientean	555,00
C. Makinek (klimatizazioa, aireztapena, jarduerak eta abar) kanpora isurtzen dutena neurtzea	796,00
D. Etxebizitzaren arteko aireko zaraten kontrako isolamendua neurtu ondorengo txostena (UNE EN ISO 140-4:1999)	877,00
E. Fatxadako aireko zaraten kontrako isolamendua neurtu ondorengo txostena (UNE EN ISO 140-5:1998)	1.045,00
F. Lurreko inpaktuen zaraten kontrako isolamendua in situ ebaluatzeko entseguaren ondorengo txostena (UNE EN ISO 140-7:1999)	760,00
G. Instalazioek edo makinek babestutako barruti batean sortzen duten zaraten maila neurtu ondorengo txostena	699,00
H. Jarduera egiten den barruti bateko zarata mugatzaileak egiaztatu ondorengo txostena	581,50
I. Kostu gehikuntza entseguak, neurketak eta egiaztapenak gaez egiteagatik (20:00-04:00)	423,00

14. ordenantza fiskala: El Espinar gunean kirol zerbitzuak emateagatiko prezio publikoa

Tarifa aldatzen da.

	Euroak
Eguneroko sarrera, A taldea, 4 eta 15 urte bitarteko erabiltzailea	
Laneguna	3,50
Jaieguna	5,00
Eguneko sarrera, B taldea, 16 eta 65 urte bitarteko erabiltzailea	
Laneguna	5,00
Jaieguna	7,00
Eguneko sarrera, D taldea, 65 urtetik gorako pertsona, pentsiodunak, ehuneko 33tik gorako desgaitasuna aitortua dutenak	
Laneguna	2,50
Jaieguna	3,50
Hileko abonamendua (30 egun)	
A taldea	19,50
B taldea	33,00
D taldea	14,50
Denboraldiko abonamendua	
A taldea	34,00
B taldea	51,00
D taldea	26,00

**15. ordenantza fiskala: kirol instalazioak eta soziokulturalak
erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa**

Aipatzen diren tarifaren epigrafeak aldatzen dira.

	Euroak
J) Udaletxeko bilkura aretoa ezkontzetarako erabiltzea lan ordutegian	00,00
K) Udaletxeko bilkura aretoa ezkontzetarako erabiltzea lan ordutegitik kanpo	204,00